



ABALTZISKETA

HERRIKO EREMU PUBLIKOETAN EGINDAKO KALTEAK

Udal honetan , hainbat kexa jaso dira , eta batez ere herriko faroletan kalteak egin direlako .

Faroletan egin diren kalteak armarekin eginak daude, armak esaten direnean , 4.motatako armak dira, karabinak hain zuzen ere . Arma hauek , non , noiz eta nola erabili behar diren araututa dago . Legeak arautzen duenaz gain , alkateak eskumena du arma horien erabilera eremua arautzeko ,137/1993 Erret dekretuak 149.5 artikuluan jasotzen duen bezala .

Arma hauekin hirigunean , jendartean , eremu publikoan , eta eraikin publikoetan ibili direla jakin da , eta erabilera honek arriskua dakar guztiontzako . Arrisku hau , farolaren buruak haustea baino latzagoa izatea iritsi daiteke. Beraz, saia zaitezte arma horien jabe eta erabiltzaileek, legeak onartzen duen lekuan , garaian eta orduetan erabiltzen .

Baita ere jakin da , beste motatako armak deritzanak ere erabiltzen direla , hau da 5 motakoak , eta hauek punta fina duen beste elementuak dira , labana , matxete , aizkora e.a. hauek ere aipatutako legearen barruan , beraien erabilera nola egin behar den arautua dago .

Eta argi bide hauek eman ondoren , udalaren faroletan egindako kalteak baloratzen hasi behar da . Oraingoz , egindako kalte hauek udalak bere gain hartuko ditu , baina aurrerantzean honelako jarrerak eta joerak herrian somatzen badira , bestelako neurriak hartzen hasi beharko da . Alde batetik , egindako kaltearen balioa erreparatzea izango da,eta bestetik erabilera egokiak ez badira egiten , ertzaintzari jakinaraziko zaio , beraiek jokabide hauen jarraipena eta kontrola egiteko .

Alkateak , isunak jartzeko eskunena du eta horrela beharko balitz , lehen aipatu diren neurrietaz gain , 300 euro arteko isunak jartzeari ekin beharko dio .

Idatzi honekin , gazte eta gurasoen artean hausnarketa bat egingo duzuelakoan gaude eta udalak adierazitako neurriak indarrean jarri beharrik ez izatea nahi genuke .

Zalantzarik baduzu etorri idazkaritzara eta argituko zaizkizue .

Abaltzisketan , 2017eko abenduaren 14ean . Udalak